

Liburuak

KRITIKA

Uretan lez. Yolanda Arrieta.
Erein. 156 orrialde. 15,50 euro.



Helduen literatura
Amaia Alvarez Uria

Dosi txikien eragin handia

ZERK BULTZATZEN GAITU egunkaria zabaltzean bertako zutabeak irakurtzera? Munduan gertatzen dena ezagutzeko gogoak? Gertatzen denari buruzko iritzia jasotzeko asmoak? Zutabegilearen ahotsaz eta estiloaz gozatzeko irrikak?

Liburu honetan Yolanda Arrietak 2004tik 2007ra *Deian* eta *Berrian* argitaratutako artikuluak aurkituko dituzu. Bere bizitzaren puska batzuk eskaintzen dizkigu testu hauen bidez, bere sormenaren fase bat izan dena batu du hemen, liburu, egutegi eta ekitaldietaz gain, egunkarietan ere ekarpen aipagarria egin duelako.

1.400 karaktereko zutabe hauetan urte horietan gertatutakoaren errepaso aurkituko dugu, orduko albistegietan agertutakoak eta egilearen egunerokotasunean gertatutakoak. Gertaera sozial eta etxekoak, iritzi eta hausnarketak, kezka eta desioak daude bata besteari jarraiki.

Idazle honen ahots irudimentsuak bizitza eta errealitatea modu desberdinetan begiratzeko proposamena luzatuko digu testuotan barna. Denboraren iragaita bizkorra, naturaren presentzia, oroimenaren garrantzia, emakumeen lanaren balorazioa, euskal gatazkaren pisua, identitate anitzen aldarrikapena eta haurren mundua izango dira jorratuko dituen gaietako batzuk.

Begirada behatzaile eta deseraikitzailearekin, hizkera "arina bezain sakona" erabilia, irudi ugari emango dizkigu. Kolorez jantzitako ipuin kontalaria daukagu, batzuetan argi eta besteetan ilun agertuko dizkigu bere kontuak. Batzuk goxo helduko zaizkigu, besteak zorrotz. Jakin-min handia duen haur batek hitz egingo du orain eta esperientziak erakutsitako helduak gero. Galderarantzunak erabiliko ditu batzuetan bere testua egituratzeko, edo haur eta objektuei emango die hitza besteetan, kontua, lehen esan bezala, ikuspuntua aldatuz jolastea baita.

Bizitzari buru-bihotzez begiratzen dio benetako ikuspegi global edo unibertuala emanaz. Norbaiti femeninoa begitanduko zaio, sentimentala, arrosa. Beraz, balekoa ez dena, partziala, neskentzat. Baina bada garaia norberaren esperientziatik abiatutako kontaketa guztiontzat aldarrikatzeko, zentzumenean bidezko eza-gutza plazaratzeko eta barruan gordetzen ditugun duda eta kontraesanak erakusteko. Azken finean denok sentitzen dugu eta pentsatzen dugu, denok daukagu, Arrietaren zutabeetan azaltzen den bezala, etxe aurrean udaberria datorrela esaten digun mimos landare bat; eta denoi gustatuko litzaiguke euskaraz publiko guztientzako ganorazko programazioa egotea telebistan. ■

Joseba Gabilondo, euskal literatur genero "txiki"-ez

Egan aldizkariaren zenbaki berriaren azalean hiru artikulu aurkitu ditugu nabarmenduta: *Euskal literatur genero "txiki" eta hibridoen zentraltasunaz* izenekoak, Joseba Gabilondok idatzia; Joxe M. Etxeberriak, 1913 eta 1917 bitarteko grabaketak kontuan hartuta, herri literaturaz idatzi duena; eta Patziku Perure-




Egan.
Batzuen artean.
Euskalerrriaren
Adiskideen
Elkartea.
254 orr. / 18 euro

nak Juan Mari Lekuonaren *Ibaiak basamortuan* liburuaz idatzi duen *Juan Mariren azken bozetoak*. Ez dira, prefosta, aldizkariaren argia ikusi duten artikulu bakarrak: nabarmentzekoak dira, besteak beste, Daniel Landartek Piarres Larzabali buruz idatzitako biografiatxoa, edota Amaia Iturbidek Jean Paul Sartre eta Albert Camusen ekarpenen inguruan eskribitua. ■

Elkanoren biografia, Berasaluzeren eskutik

Gari Berasaluze idazle eta kazetari getariarrak bere herrikide baten biografia idatzi du: Joan Sebastian Elkanorena, hain zuzen ere. Txalaparta argitaletxeak haur eta gazteei zuzendutako *Axuri Beltza* bilduman argitaratu du liburua, Berasaluzeren testu dotoreari Dani Fanoren ilustrazioak gehituz. Emaitza: egun berean hasi eta buka daitekeen biografia gustagarria. Kapitulu laburretan barrena duela bostehun urteko menturazale handienetako baten bizitza ulertzeko gakoak eskainiko zaizkigu, tartean, munduari bira eman zion lehen pertsona nola bihurtu zen. Bidaia literaturaren ozeanoetan ere egin du Berasaluzek, testuari bigarren irakurketa egiten ahal zaiolako han-hemenka utzi dituen keinuei jarraituz. ■



Elkano,
itsasoak emandako bizitza.
Gari Berasaluze.
Txalaparta.
172 orrialde / 13 euro.